



Arritegi

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Arratai

“... la casa accesoria [de la casería principal de Arroita] conocida con el nombre de Arritegui se halla... en la misma barriada de Murgotio... comprende una vivienda con sus correspondientes repartimientos y local para el uso de labranza; miden la planta y antezano tres áreas, cuatro centiáreas, treinta y tres décimetros y noventa y dos centímetros, igual a ochenta estados...”
DJE 5/37 or. (1881)



43° 9' 28"

2° 34' 4"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala 1825ekoa da, *Arritegui* agertzen baita poliziak egindako erroldan, Murgotio kofradiari dagokion baserriari erreferentzia eginez. Auzokoen zein herritarren artean, baserri hau *Arratai* moduan ezagutzen da. XIX. eta XX. mendeetan zehar Udalak egindako erroldak erakusten dutenaren arabera (1857, 1905 eta 1967), bizitza moduan erabili arren, egun baserria hutsik eta erdi-erorita dago, sasiak estaltzen dutelarik. Berriz eta Elorrio lotzen duen errepidearen bazterrean kokatuta dago.

Erdi erorita dagoen arren, gordetzen ditu atzeko hormak eta fatxadaren zatiren bat. Ate-ingurua nolakoa izango zen ezin izan dugu ikusi; baina, geratzen diren aztarnetatik abiatuta, esan genezake XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako etxeen antza duela: hiru ardatzetan antolatuta, balkoiak erdian (hormigoizkoa eta ganbarakoa), eta leihoak, alboetan, azkeneko solairukoak izanik txikiak. Harlanduzkoak dira bao inguruak eta etxearen kantalak; hormak, osterak, luzituta eta margotuta daude.

toponimia

Itxuraz, izenak ez du bestelako azalpenik behar. Arritegui izenaren osagaiak dira: “harri” hitza, eta “toki” esan nahi duen -tegi atzizkia. Hala ere, ez da arrunta XX. mendeko etxe batean egitura hori agertzea, eta pentsa genezake oinarrian Gipuzkoako Gazteluko Arriategi deitura dagoela. Ahoz erabiltzen den izena, hots, Arratai, inguruko ohiturari jarraiki eratu da, tarteko -g- hizkia desagertzeaz gain, bokalen arteko armoniak Arratai sortu baitzuen.